

Ibon ARANBERRI | *Artista plastikoa*

## «Bat artista izan liteke objektu materialik ekoitzi gabe ere»

Labur samarrak izaten dira artista plastikoak beren obrari buruzko adierazpenetan. Ez da Ibon Aranberri iztiartarraren kasua. Zehaztasun harrigarri mintzo da artearen azkenaldiko bidegurutzetara eta krisialdiez, eta euskal artista gazteak irekitzen ari diren bideei buruz. Hain ondo hitz egiten du, obrarik gabeko artistak badaudela sinetsarazten dio entzuleari. «Ez obrarik gabe, baina bai obra materialik gabe» zehaztu du berak.



ibon OTIEGA/AGENCIAPRESS

**O**rain 8 urte bukatu zituen Arte Ederretako ikasketak, eta geroztik irakasle ere izan da, urtebete pasa, fakultate horretan. Hortik dator, beharbada, arte plastikoari buruz teorizatzearen erraztasuna. New Yorken eta Japonian urte bana egindakoa da. Izen handiko jaialdi eta erakusketetan parte hartu izan du, eta beste zenbait lagunekin batean "Transakzio denbora" izeneko mintegian esku hartu du Donostiako Miramar jauregian.

—Noiz erabaki zenuen artista izatea?

Ez zen erabaki bat izan, gertatutako gauza bat baizik. Esan nahi dut, artista izatea ez da amets bat izaten askotan, gertaera bat baizik; bizitzak berak erabakitzen duela, alegia.

—Nola laburtuko zenuke zure ibilbidea?

Hasieran diseinuari edo arkitekturari lotutako eskultura landu nuen, baina gero eta gehiago proiektuak egiten ditut gaur. Diziplina batek markatutako lanak adierazpenarako leku jakinak eskatzen ditu, museoak edo galeriak eta, artistak maiz arte egitura ofizialekin gaizki konpontzen garenez, nire proiektuak erakusteko behar ditudan espazioak ere neuk sortzen ditut. Gero eta gehiago zuzenean lan egiten dut, jenduraren, erakusketen lotu gabeko moldeak bilatuz.

—Proiektua diozuean, zerbait materiala, objektua ekoitziko duzula adierazi nahi al duzu?

Oteizak berak ere esaten zuten berarentzat eskultura ez dela materia, elementu sozial bat baizik, inguruarekiko lotura bat; eta, nire kasuan ere, une batean materia muga bihurtu zen. Azken urteotan herriz herri egiten ari diren eskultura

horien kontra nago erabat, eta Fundazioak daraman bidearen kontra, are gehiago. 53an produktzio materiala alde batera utzi zuzenean, erabaki guztiz artistikoa izan zen; eta, antropologia edo poesia idazten duenean, bera eskultore sentitzen da, nahiz idazkera izan bere lanabesa. Baina non geratu da Oteizaren lan pedagogikoa? Donostian, esate baterako, Oteizaren eskultura bat jarri dute Paseo Berrian Txillidarekin lehiazteko eta beti Txillidak irabazten du, Txillidaren obrak hor egoteko sortu zirelako eta Oteizarenak ez. Oso tristea da hori. Txillidak hizkuntza trebe eta garatua zuen, objektua ondo kontrolatzen zuen eta lekuarekiko harremana ere bai, modu organiko batean lan egiten zuelako. Oteizak ez ordea. Oteizaren objektuak linguistikoki dira. Oteizak espazio publiko batean jartzeko egindako objektu bakarrak —Irungo mugan duena eta Tolosako Benta Haundin dagoeana— ez dute zerikusirik gaur eguneko monumentutxoekin. Benta Haundin sasi artean zegoenean gustatzen zitzaidan ni-

ri. Nire ibilbidea itzuliz, hasieran inguruarekiko harreman horretarako objektua behar nuen, baina gero objektua desagerraraztera jo nuen eta inguruarekiko zuzeneko harremanaren bila abiatu nintzen. Horrek ez du lana immateriala bilakatzeko. Guk proiektu bat egiten ari garela diogunean, diziplinaz gaindiko lana egiteko modu batez ari gara. Inguruarekin harreman zuzena nahi badugu, objektuaren alderdi simboliko hori ez da batera eragin korra, eta beste tresna batzuk erabili beharrean aurkitzen gara, teknologia berriei lotutakoak, esate baterako. Eta hor, arte kontzeptu edo ideia bihurtzen da, beste ezer baino gehiago. Ni, dena den, ez naiz hain erradikala eta puntako jarrera horien artean kokatzen naiz: nolabait artearen ohiko balibideak erabiltzen ditut, baina beste era bateko harreman batean, ez da kontenplaziozko harremana.

—Abstraktuan hitz egiten ari garenez, jar ditzagun adibide batzuk, zeureak direnak.

Nire azken proiektua historiaurreko kobazulo bat ixtea izan

“

**Sinboloa bera,  
Gaur taldeak  
erabili zituen  
mitifikazioak,  
domestikatu  
nahi ditut**

da. Aizkorriko mendikatean dagoen Iritegiko haizuloaren sarrerara itxi nuen, metalezko xafia batekin.

—Etain ere itxi zuten eta ondo itxita dago.

Honek ez du helburu funtzionalik, beste zentzu bat du. Ez du haizulo bat anulatu nahi izan. Ez da batera agresiboa. Ate bat geratzen zaio. Nik erreferentzia simbolikoekin lan egiten dut. Lana bera ez da sinbolikoa. Horrelako interbentzio batekin

sinboloa bera neutralizatu egiten da eta azkenaldi honetan asko erabiltzen ditut azken hamarkadetakoa joeretan sartu ziren mitifikazioak, Gaur taldeak erabili zituenak batik bat, hemengo sustraiekin sakralizazioa esate baterako. Nire lanak, noski, badu Oteizarekin zerikusirik. Nik sakralizazio hori domestikatu egin nahi nuke.

—Aita hil nahi duzue, zuek haren lekua hartzeko.

Ez da hori bakarrik. Sakralizazio horrek lana itxi egiten du, gure sustraia mirengarri bihurtzen ditu, baina ez dira erabilgarri izaten. Eta ni, gaur eguneko kodeak erabiliz, ukiezinak diren zenbait erreferentzia eta oinarri gureganatzen saiatzen naiz.

—Arteaz harago doala diozu lan hori.

Euskal Herrian kobazuloek duen izaera mitologikoekin lotzen dut lana. Hizkuntza komun bat erabiltzen dut, baina lekuan lekuko berezitasunekin nahasiz, nolabait globalitatearen diskurtsoa hankaz gora jartzen dituen lekuak badaudela frogatuz. Nik

lan hau bera beste herrialde batean aurkeztuko banu, beharbada Platonen mitoarekin lotuko lukete, ez dakit. Dena den, nire lanetan ironia ere badago, ez adar-jotze gisa, esanahia aktibatzeko modu bezala baizik.

—Eta proiektu bat kanpoan aurkeztean duzuean?

Joan den urtean Manifestan, Frankfurten (datorren urtean Donostian egingo da), erreprezentazio lokalekin mundu mailako erakusketak egiten saiatu ziren, eta nik, joan den mende hasierako erakusketak internazional haietan herrialde bakoitzak egiten zituen pabilioiak erabiliz, gure pabilioi bat egin nuen Picassoren "Guernica" koadroarentzat. Nies Van Deroren, modernismoaren arketipoak egin zituen arkitekto alemanaren, tipologia erabili nuen pabilioi txiki hori egiteko. Modernismoak berrikuntza kultura unibertsal bat planteatu zuen eta alemaniar faxismoan izan zituen horrek eraginak. Hori gaur egun atzera geratu da; baina, gaur egun, multikulturalismoaren izenean neokolonialismo berri bat ezartzen zaie kul-

tura lokalei. Orain "Guernica" gerraren kontrako ikono gisa erabili da; baina "Guernica" ez da gauza bera Alemanian, Madrilen edo Euskal Herrian, koadro hori ia-ia logotipo bilakatu baita. Eta esanahi desberdin horretan oinarritu nintzen nire proiektua egiteko. Oraindik han dago Frankfurteko ibaiaren ertzean.

**-Proiektu horiek ba al dute zentzurik diskurtsorik gabe? Artea ez da eraginkorra gure eskalatik kanpo. Atzerrira joaten garenean oso problematikoa da, lekuarekin harreman gutxi dugulako, eta beharrezkoa da ezagunak diren elementuak erabiltzea. Horregatik erabili nuen koadro hori. Eta gero, noski, argitalpen batean agertzen nituen nire arrazoiak. Baina ez da beti beharrezkoa.**

“  
**Apunteak  
hartzeko  
erabilgarriak  
dira nire ohol  
edo «egur»  
horiek**

“  
**Oteizak artea  
gizartearen  
erakintzarako  
erabili zuen;  
artista  
politikoa zen**

**-Donostiako mintegirako, ordea, objektu bat egin duzu. Objektuak dira, baina modu anonimoan eginak. Neu bertakoa izanik, gauza xume eta funtzional bat egin nahi nuen. Ez zen lan pertsonala egiteko abagunea. Hogeita hamar partaide ziren mintegian, eta bakoitzari haritz hosto baten formako haritzeko ohol bana eman genien. "Egurra" deitu diet. Apunteak hartzeko erabilgarriak dira ohol horiek, eta badago hor ere, noski, sinboloaren arintze bat, gure sinbolo horiek trinkoegiak direlako. Ez da transgresioa, neu ere sinbolo horien eramaile naizelako, bertakoa naizelako. Kanpotar batek ezin dezake hori egin, baina nik bai.**

**-Mintegian zer testu aurkeztu duzu eztabaidarako? Mintegiak ez du gai bakar bat, norabideak aurkitu nahi dira. Nire testuan neure biografia eta bizipen pertsonalak modu literarioan kontatzen saiatu naiz, eta euskaraz egin dut hori, bizipenak konpartitzeko metaforak beharrezkoak direlako. Nolabait artista izatea ez dela aktibitate bat, identitate bat baizik, horixe agertu nahi izan dut. Artean alde aurretik eraikitako hizkuntza bat erabili ohi da; eta non dago artista bera, artistaren nortasuna? Galdera horri erantzun nahi izan diot. Mintegi honen berezitasuna, bestalde, itxia izatea zen. Gaur egun erakundeek kultura instrumentaltzat egiten dute; horrenbestez, mintegi itxi bat diru publikoarekin egitea ez da batere ohikoa, eta hori txalogarria da.**

**-Zein dira bildu zareten 30 horiek?**

Artista ez kontsaktatuak gara eta kasu guztietan obrari baino garrantzi gehiago ematen diogu pertsonari. Badago, esate baterako, artista suediar bat bere ahotsarekin lan egiten duena. Hogei urte darama ahotsarekin lanean, ahotsarekin espazioak eraldatuz. Aho-tsa fisikoki erabiltzen du, ez zerbait adierazteko. Badaude filosofoak, soziologiak eta arte munduko adituak asko interesatu zaizkidanak. Jatorriz ere askotarikoak dira.

**-Artearen eta gizartearen arteko harremana aztertu omen duzue. Harreman horren kristaldia aipatzen da sarri.**

Oteizaren eredia aipatu dut, berriro ere, baliagarria delako, oso norabide zabalean lan egin zuelako. Oteiza bai izan zela artista politikoa; eta ez bakarrik bere ideologiatik, baizik artea gizartearen erakuntza baterako erabili zuelako, lanabes bezala erabili zuelako alegia. Egin behar honetaz hizketan hasten garelarik, hala ere, oso erantzun desberdinak aurkituko ditugu. Gu identitate lokalaz mintzo gara, baina zer da identitate lokala Suedian? Guk ez dugu mintegian ondoriorik aterako. Askoz ere beharrezkoagoa da krisiak identifikatzea. Euskal Herrian, orain, ez dugu lan egiten homologatuak izateko asmoarekin edo modan dau den jorei jarraituz; geure go-goetak eta bideak egiten ari gara. Nire belaunaldikoei buruz ari naiz.

**-Zein dira arte plastikoetan zuren belaunaldikoak?**

Joan dena dago gure aurreko belaunaldi bat, Juan Luis Morazak, Txomin Badiolak eta beste zenbaitek osatua hain zuzen, eta, gurean, berriz, Asier Perez, Begoña Muñoz, Sergio Prego, Itziar Okariz eta Jon Mikel Euba aipatuko nituzke, batzuk aipatzeko. •